

Iñaki Iñurrieta Goikoetxea

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1918-2007)*

Aurkibidea

Biografia



Kalebarrengo 12. zenbakian jaio zen eta bertan bizi izan zen 34 urtera arte, ezkondu zen arte. Gurasoak ere Soraluzekoak bertakoak ziren, nahiz aitita-amamak bergararrak izan. Etxean aitita-amamak, gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren, zazpi mutil eta arreba. Bera da anai-arrebatan zaharrena. Gerra denboran aita kartzelan izan zuten. Berak eta Nikanor anaiak gerran ibili behar izan zuten.

Zintak

SOR-030

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-01
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Mini Disc

SOR-031

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-05
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Mini Disc

SOR-035

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-20
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Irisarri, Estitxu

SOR-036

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-20
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Errepublika garaiko bizipenak eta aldaketak

- **Erref:** SOR-035/002
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika garaiko bizipenak. Plaza zaharrari "Alfonso XIII" izena jarri zioten eta errepublika hasi zenean, 12 urterekin, hari harrika ibili ziren. Erlijioak indarra galdu zuen errepublika garaian eta eskola erlijiosoan eta publikoen artean konpetentzia sortu zen.

Transkripzioa

- Republikia heldu zanian, zenbat urte zekazuen zuek?
- Iñaki: Nik hamabi, hamahiru ein bihar, uztaillian ein bihar hamahiru. Ta

hori izan zan ba...

- Jaio: Nik hamaika einda.

- I: Hamabi eindda, ein barrixak hamabi.

- J: Bai ,bai.

- I: Martixan hogeta bederatzixan hamabi ein ta apirillan...

- J: A bai, hori dok, hori dok. Hemeretzixan, hemeretzixan...

- I: Bueno, nik orduko zera daukat, urte pare bat edo aurretikan, Primo Riveran zera zeuan, diktaduria esaten jakon, ta Plaza Zaharrari ipini otsen izena "Plaza de Alfonso XII".

- J: Trece, trece.

- I: Edo... trece. Ta hamabi urtekin, goguan dakat, kuadrilla bat hari harrika zela ibili giñan.

- J: [...].

- I: Erregian zerari, hamabi urtekin! Anbientia... Hasieria hori izan zan neria Errepublikiana.

- J: Neri be bai, hantxe nitzuan neu be ta! Hantxe nitzuan.

- I: Egun batzuk aurrer... bueno, egun batzuk edo pare bat urte edo aurrerao izango zuan, edo hiru edo holan, zerian, formauta ume guztiak etorritta ta izena ipini otsenian horri. Eskoletako umiak eta eguardi denporan. Inportanzia haundixa emon jakon erregian izena emotiari horrerri. Ba...

- Eta ze kanbixo? Hau da, igarri zenduen kanbixorikan? Eskolan-ta pasauko zian, ba?

- I: Bai, libertade gehixao egongo zala. Oin... oin detalliekin-ta ez naiz gogoratzen ni. Baiña gauza bat somau nebana nik, eskoletan... Klaro, orduan, handikan hillebete batzuetara, ba, zera, hau, relijiñua-ta zertu ein zian. Oseake, lehenao, ba, Elixia zan, Estaduan gehixen aintzen ebana. Ta ya "separación de la Iglesia y del Estado" ein zebe ta zerak, relijiosuen eskoletan be, ba, relijiosuak "paisano", oseake, bere sotana baekan ta ibili bihar izaten zian. Ta egon zan "pugna" bat "escuelas públicas" esaten jakuenekin ta eskola relijiosuen artian... Erakusten zailddu zian danak — guri ondo etorri jakuna. Bai, oso, zera izan zan.

2. Erlijioa euskaraz edo gaztelaniaz ikasteko aukera

- **Erref:** SOR-035/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ikasgai guztiak gaztelaniaz izaten zituzten. Erlijioa bakoitzak aukeratzen zuen euskaraz edo gaztelaniaz ikasi. Eurak euskaraz ikasi zuten, baina oso euskara eskasa zen. Gerora hobetu zituzten euskarazko irakasgaiak.

3. Errepublikak ekarritako aldaketak eta gainbeheraren arrazoia

- **Erref:** SOR-035/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika garaian aldatu ziren kontuak: eliza eta estatua banatu, akademia militarrek itxi, 44 lan-orduko astea... Aldaketak azkarregi egin ziren eta boterea zutenak kontra jartzean huts egin zuen errepublikak.

Transkripzioa

- I: Gero gauza bat, neretako, geruao pentsatzen egoten nitzuan ni, orduko zerak, ezta? legien aldaketak eta... Egon zuan [dogmatismo] asko egon zuan. Baiña lehen esan dotena hor, bat, "Separación de la Iglesia y del Estado", ein bihar zan gauzia. Baiña horrekin Elizako jerarkixak kontra ipini jittuan. Gero beste bat ein juan, baeuan jeneraletan ta zerian, ejerzito espaiñolian, bueno! iñun baiño gehixao jeneralak eta be. Ta akademixak itxi in juan zertu arte, normalizau arte, edo zertu, ta militarrek ipini jittuan kontra. Ta halako gauzak, ba, mordua. Bizkorregi ein jittuan gauzak. Bizkorregi, ez dakik? Jentia preparau baiño lehenao "tra!" ta... Kontra ipini juan zera, hau... sozial asuntuan be, ba, ordura arte ahal zebanak ahal zeban beste ordu eitten juan. Ipini juan "la semana de cuarenta y ocho horas". Edo... "cuarenta y cuatro horas". "Cuarenta y ocho" aurretik euan, uste juat. "Cuarenta y cuatro horas", osea, zapatu arratsaldia jai. Este... "sábado inglés" esaten jakuan horri. Ta orduan, ba, zera, patronala edo kapitala, ba, kontra ta... Oseake, indarra euken guztiak kontra ipini jittuan. Ta gero beren artian be zer asko egon zuan, e! Ez jakixat nik, ez juen jakin gauzia ondo eruaten neretako.

- J: Bai, baiña, gero ya oztokuak gero aldia guztietatik oztokuak, e! Laga be ez!

- I: Ez ba, ez ba!

- J: Laga ez.

- I: Ez otsen lagatzen, ez otsen lagatzen gauzak ondo eitten be. Hori be ez. Baiña jentia be ez jeuan zertuta...

- J: Ez, ez.

4. Sozialista batzuek ikurrina erre zuten Eibarko batzokian

- **Erref:** SOR-035/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:08:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Eibarren denak sozialistak ziren. Sozialista batzuek batzokian ikurrina erre eta mutiko bat jo egin zuten. Handik urte batzuetara, gerra denboran, berriaz elkartu ziren ustekabeen.

5. Errepublikaren albistea Soraluzera

- **Erref:** SOR-035/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Luis Larrea soraluzetarrak Eibarren taberna zuen eta berak ekarri zuen errepublikaren albistea herrira. Eibar izan zen errepublika aldarrikatzen lehenengo eta "Ciudad ejemplar" titulua eman zion Espainiako gobernua.

6. Antzerkiak egiten zituzten batzokian

- **Erref:** SOR-035/009
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Antzerkiak egiten ziren batzokian, liberaletan eta karlistetan. Behin diru-batze bat zela-eta denek parte hartu zuten antzerkian. Emakume batek egindako komentario baten inguruko anekdota. Jaio ere ibiltzen zen. Beste herrietako batzokietara ere joaten ziren antzeztera.

7. Batzokiko ekimenak; hitzaldiak

- **Erref:** SOR-035/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Hitzaldiak

Laburpena:

Larunbatetan beti zerbait egoten zen batzokian: antzerkia, kontzertua, dantzak... Garai batean hitzaldiak ere antolatu zituzten; hizlariak: Luis Lacuesta, Migel Gallastegi...

Transkripzioa

- I: Hamen ederra euan saloia. Ta...
- J: Bai, eszenarixo ederrakin [ta...].
- I: E?
- J: Segi, segi.
- I: Zapatuetan kafia hartzera urtetzen [juan] jentia afalostian ta zapatuetan hortxe zeoze egoten zuan beti hamen batzokixan, hor teatrua zala edo konziertua zala... Orfeoia be ederra euan, hamentxe eitten zittuan, gaiñera, zerak, ensaiuak.
- J: Bai.
- I: [Ta hor, zera], ezpata dantzariak eta [gorulariak] eta... osea, oso mobimentu haundia egoten zuan batzokixetan orduan. Ta... egon hari, ahaztu jatak ze esatera ninddoian ta! Zeoze esatera najinddoian ordukua... A! Epoka baten organizau juen, bueno, juntakuak esaten [eben]: "Fulanori esango jotsau berba eitteko gaur —osea— datorren zapatuan".

- J: Bai, bai.
 - I: Esaten otsen: "Hi! Datorren zapatuan konferenzia bat emon bihar dok, heuk nahi duan asuntuan gaiñian". Ein juen orduan Luis Lacuestak, orduaintxe abogazia amaitzen-edo euan ta abogazian gaiñian.
 - J: Migel Gallastegik.
 - I: Migel Gallastegik be bai, [Ereñak] be ein juan ta beste batzuk! Gure aittari be tokau jakuan zer baten. Ta gure aittak ein juan, pentsaik! Bertan zapatuan akordau erein najotsan "Gaur, e —beori esaten najotsan nik aittari— beorrek ez dau ein bihar zerian?" ta "A, bai!" Ta ordun taillarrian ein jittuan holako bertso batzuk eta bertsuak irakurri ein jittuan harek. Holaxe izaten zuan hamengo zera.

8. Antzerkia egitera joanda gertatutako anekdota

- **Erref:** SOR-035/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zumarragara antzerkia egitera joanda Karlos Linazasororekin gertatutako anekdota. Elorrion joan zireneko kontuak; neska morena bati begira egoten ziren denak.

9. Gerra hasiera nola bizi izan zuten

- **Erref:** SOR-035/013
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra hasiera nola gogoratzen duten; hegazkinak etortzen hasi ziren. Lehenbizi, Afrika inguruan mugimenduak zeudela jakin zuten, eta gero gerra hasiera etorri zen. Gerra zetorrela antzemandakoan, neurriak hartu zituzten: kotxeak blindatu, kuartelak babestu...</p>

10. Orduko egunkari eta aldizkariak: 'Euzkadi', 'El Día'...

- **Erref:** SOR-035/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Abertzaletasuna etxetik datorkie. Iñakiren aititak La Constancia integristen aldizkaria irakurtzen zuen, baina geroago aita Euzkadi aldizkaria hartzen hasi zen. Jaioren etxean ere Euzkadi egoten zen, eta baita El Día egunkaria ere. La Voz de Guipúzcoa eta La Constancia aldizkarien inguruko pasadizoa.</p>

11. Gerra garaian herritik ihesi

- **Erref:** SOR-035/016
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:27:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, Bilbora egin zuten alde. Tren berezi bat jarri zen eta jende asko joan zen Soraluzetik. Itzultzean, askok etxea guztiz hondatuta aurkitu zuten. Eurak kanpoan zeudela beste batzuek euren gauzak hartzen zituzten, ez zutelako uste gehiago itzuliko zirenik.

12. Batzokia ekintzaz beteta: dantzak, orfeoia, irakurketak, lehiaketak...

- **Erref:** SOR-035/018
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:31:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Umetatik batzokira joaten ziren eta euskal dantzak ikasten zituzten bertan. Beti zegoen ekintzaren bat antolatuta. Irakasgaiak ere ematen zituzten euskaraz Santa Ana kalean zegoen batzokian. Iñakik irakurketa lehiaketa bat irabazi eta 7 pezeta eman zizkioten sari gisa. Jaiok berak emandako hitzaldi baten esandako hitzak gogoratzen ditu.

13. Dantza-irakaslea fusilatu egin zuten

- **Erref:** SOR-035/019
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:31:56. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Domingo zuen izena batzokian dantzak irakasten aritzen zenak. Miliziano

batzuei bidea erakusten zebilela, erreketeeek harrapatu eta fusilatu egin zuten Maltzagan. Jendea erraz hiltzen zuten orduan.

14. Herritik ihesi nora alde egin zuten; lehenengo gaua

- **Erref:** SOR-035/020
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:36:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Iñaki Gernikara joan zen. Jaio, lehenbizi, Bilbora joan zen; eta, gerora, Zallara. Jaioaren aita Otxandion egon zen. Hantxe desagertu omen zen euren ezagun bat. Trenez alde egin zutenean, lehenengo eguna nola pasatu zuten.</p>

Transkripzioa

- Zuek nora jua ziñaten? Nora...?
- J: Gu?
- I: Ni Gernikara.
- J: Bai, ta ni zerera, lehenengo Bilbora ta Bilbotikan Zallara, Zalla. Edarra herrixa, nere bigarren herrixa haxe dok. Joe... Benetan gero, e! Neu be mutil gaztia nitzuan ta beste gure anaiak danak... beste lau anaiak frentian. Aitta be bai, aitta be frentian ibili zuan guria. Haura armero moduan-edo, baiña zerian, Otxandixon. Ta gero atakia hasi zanian, orduaintxe [...] etorreria. Hantxe hil zuan zera... entzunda eukiko dozu [izena], Abelin.
- I: Abelin. Bai.
- J: Hauraxe... "Abelin hantxe zan ba" ta "hantxe zan ba" ta "[Pagotxikin] atzo, ondio atzo geurekin egon zan berbetan ta" ta ez dakit zer [...] hantxe nunbaiten zerian, ta egunak pasau ta egunak pasau ta zerian ta haura agertu ez gehixao.
- I: Desaparezidu, bai. Haura ta Barrutia ta...
- J: Afusilau haura!
- I: Bai, harrapau ta afusilau eingo jittuen.
- J: Bai, bai. Haura zan [...]! Tristia!
- Ta Gernikara esan dozu zuk?
- I: Bai.
- Ta zela izan zan lehelengo... hemendik alde ein ta lehelengo egunak zelakuak izan ziran?
- J: Lehelengua txarra!
- Lehelengua txarra?
- J: Bai. Bilbon, guk Bilbon.
- I: Nik lehelengo gaba ein najuan zerian, Amorebietako estaziñuan.
- J: Bai, estaziñuan.
- I: Honek... Etxabe ta familixia han koltxoiekin-ta ta han [...] ein najuan lo. Nikanor be bai. Bi anai jua giñuazen.
- J: Ba, nik...
- I: Ta...
- J: Bueno, segi. Nik ein najuan...
- I: Gero, hurrengo egunian, zerera, Amorebietatik Gernikara. Senide batzuk [jeuazen] han ta haretxegana.
- J: Nik Bilbon, estaziño bertan segiduan jeuan, zera... "Escuelas de...

Escuelas... — publikuak zittuan, e!— de Garcia Rivero”. Hantxe, [galduta]. Zientuak, e! [...] beste kanpokuak beste batzuk be [zerian]. [...]. Lorik eta ezebe eitteke. Batzuek... umiendako-eta zerak jeuazen, holako bankuak-eta, [bi-hiru zerian] ta hantxe. Zela edo hala, zela edo hala. Gero, handikan urten ta zerera juan giñuazen, [Galoneko tabernara]. Hor [Tiburzi “Galo”-k]-eta zera euken aitzia, [alabia] eukan. Ta hantxe. Han bazkaldu ta afaldu ta [...] ta gero lo be bertan, berak ipinittako habitazio batian ta... Gero, aitta-ta [mobidu zittuan, tio... alkarrekin] ta [mobidu zittuan] ta Zallara zertu giñuezen, haraxe juateko. Hantxe gero, Zallan.

15. Gernikako bonbardaketako bizipenak; batailoia-aren ibilerak

- **Erref:** SOR-035/021
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:36:04. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Iñaki fabrika batean lanean zebilen Gernikan bonbardaketak harrapatu zituenean. Bunker baten ezkutatuta egon ziren eta irtendakoan dena sutan ikusi zuten. Horren ostean "Saseta" batailoira joan zen. Laredoraino joan zen batailoia eta han "San Andres" batailoiarekin bat egin zuen. Azken frontea Betaio mendian izan zen. Handik Monteanora joan ziren eta segituan Santoñara. Hura "entrega" omen zen. Italiarrak etorri eta Laredoko hondartzara eraman zituzten denak. Zer baldintzatan egon ziren bertan.

Transkripzioa

- I: Ni ointxe, hori, e... hamendik urten genduanian gaixorik nenguan, gangliuetako ez dakit ze enfermedade nekan. Ta gero ondo zertu nittuan, baiña denpora mordua, e... Gernikan, e... ezebe ein barik, jan ta eran ta lo. Gero sartu nittuan biharrian zerian, “Talleres de Guernica”. Ta nik, e... hillebete edo eingo najuan; [orduan], bonbardeua. Gernikan hartu giñuazen bonbardeuak. Buf!
- Zu Gernikan zenden?
- I: Bai. Ta orduantxe, artian ondo amaittu barik eren zer baten, hemen, e... refugixo baten sartu giñuazen. Bonba bakoitzakin danok mobimentu bat eitten genduan barruan.
- J: Bai.
- I: Bueno, urten handikan ta, ene, ba! Zer dok hau? Sua! Dana sua! Ta, ba, familixakuen billa ta kalia ikusi najittuan tio Angel, tia Eusebi, Nikanor be berekin. Nikanorrek [...]. Bueno, kuestiñua dok, juntau giñuazen danok eta salbau gaittuk eta segiduan ni presentau nitzuan zerera, hona, e... batallon, zela zuan, e... Itxarkundia.
- J: Itxarkundia.
- I: Itxarkundia ez, Sasetara.
- J: Sasetara.
- I: [Apuntau] nitzuan ta, e... Orduantxe billau jostan lana zerak, Altos Hornosen, alkatiak, honek, Iriondok. [...] zea ta “ez, ez, e... hara jungo gaittuk, zerera”, e... Sasetarako ta gero haretxekin. Ba, orduantxe ikasi najuan nik morsia-ta; gaiñera, hartzen... hartu be eitten najuan, oin ahaztuta ta... Baiña... Plentzian egun batzuk eta gero ba segiduan Bilbo hartu juen ta [haratxe]. Juan giñuazen Laredoraiño. Laredon, e... beste

batailloi batekin bat ein, Batallón San Andresekin ta gu Compañía de Ametralladoras ta ixo genduan “a la... Pico Betayo”. Ya azkenengo eduki genduan frentia ta...

- J: Bai. Hantxe izan, hantxe izan zuan...

- I: Handikan jatsi ta egun gutxira... Andra Marixak hantxe pasau najittuan, e... hogeta hamazazpikuak Andra Marixak [...]. Bueno, kuestiñua dok, ni zerera, hona, e... a Monteano. Monteanon egon giñuazen bi edo hiru egunian ta egun baten esan oskuen “Bueno, danok zerera, Santoñara”. Santoñan juntau giñuazen milla mordua. Danok, e... gasolineran bat edo zezoen billa baiña ez jauan eze. Bueno, danok, gu han gendela, ya preparautakua zuan haura, e? Entrega zuan. Ta etorri zittuan italianuak ta [goiazen] danok zerera, Laredora, Laredoko plaiara. Emon oskuen lau lagunendako, zera, tienda kanpaiña txiki bat ta montau haura ta plaian beraneo demasa ein genduan zortzi egunian Laredoko plaian. Bueno, kuestiñua dok, e... jateko emoten oskuen egun guztirako zer bat, e... [txusko] bana ta halako pote bat, “carne congelada”, lau lagunendako ta hauraxe zuan dana. Hemeretzi urtekin edarrak! Bueno, ta etorri zuan Rita [Artolazabal], Alejon arrebia ta gure ama, egun baten gu han gendela ta, ba, guregana etorri zittuan. Ta Ritak eruan juan zer bat, e... karta bat, zerana Eduardo Gallastegiña.

-J: [Manterola].

- I: [Hori sarri egoten zuan hemen].

- J: Bai, bai.

- I: Ta han jauken Uziñeneko tabernako... tabernia, osteria, nik... Uziñeneko taillarreko zer bat, representantia, Laredokua zuan. Ta resultatzen dok, zerak, tropak sartu zianian, bera ein zebela alkate Laredon. Ta haren bittartez ekartzen oskuen goizian esnia ekarten oskuen Alejori, Nikanorreri ta neri. Bai, [harek] pixkat [...].

16. Preso hartuta egindako ibilerak

- **Erref:** SOR-035/022
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Laredoko hondartzatik Mirandako kontzentrazio-esparrura eraman zituzten. Handik Burgosera joan ziren trenez. Geroago, San Pedro Cardeña herrira joan behar zuten, eta zaldiz inguratuta oinez eraman zituzten haraino. Hurrengo egunean, berriz, San Juan de Mozarrifara. Han, langileen batailloiak osatu eta hainbat herritara bidaltzen zituzten: trintxerak egitera, bideak egitera... Afalaurrean, tartetxo bat izaten zuten eta bodegatara joaten ziren ardoa edatera.

17. Gerra denboran Zalla inguruan bizitakoa

- **Erref:** SOR-035/023
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Jaio Zallan egon zen eta herrian oso ondo hartu zituzten. Ogia ere nahikoa izaten zuten. Trintxerak egiten ibili zen bertan. Bilbo bonbardatu zutenean, arreba ere bertara joan zen. Izeba, ama eta anai-arreba mordoa egon ziren etxe batean. Handik egun batzuetara, Zalla ere bonbardatu zuten. Nazionalak sartu zirenean, mendiz Turtziozera joan zen, eta handik Castro Urdialesera. Asko biltzen ziren han, eta anaia batzuekin elkartu zen bertan. Arreba eta gurasoak Soraluzera itzuli ziren.

18. Nerbioi ibaia nola igaro zuten

- **Erref:** SOR-035/024
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Iñakik-eta Nerbioi ibaia lantxetan pasatu zuten.

19. Teruelen zero azpitik 15 graduan

- **Erref:** SOR-035/025
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:52:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Langileen Batailoian, Mendaroko batekin jardun zuen lanean Iñakik. Handik frontera eraman zituzten berriz. Tenientearengana joan ziren protestatzera, baina ez zuten ezer lortu. Teruelera eraman zituzten martxoaren 13an. Tenienteak, bonbak nola erabili azaldu ostean, bina bomba eman zizkien. 25 gradu zituzten zero azpitik eta zopa ere izoztu egiten zitzairen.

20. Frontean hil zen Gabilondo antzuolarra

- **Erref:** SOR-035/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Trintxeratik irten eta aurrera egin zutenean, bere aldameneko Gabilondo antzuolarra tiroz jo zuten. Behin baino gehiagotan zauritu zuten Antzuolako gizon hori. Bihotz ondotik ere sartu, zioten tiroa baina sendatu egin zen. Azkenean frontean hil zen.

21. Brigada internazionallean, herrialde guztietako jendea

- **Erref:** SOR-035/027
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Jaio nazionaletatik frontera eraman zuten eta berriz preso hartu zuten. Gaztelu batean egon zen 5-6 hilabetean, ezer egiteke. Boluntario joatea eskatu zuten eta Manresara eraman zituzten. Kinta zaharrak ziren bertan zeudenak. Brigada internazionala eraman zituzten handik; herrialde guztietako jendea zegoen bertan; eta jende gogorra, gainera.

22. Txekoslovakiarrak zirela sinestarazi zioten bati

- **Erref:** SOR-035/028
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bartzelonako Martoril herrira joan zen batailoiarekin Jaio. Dantzaldi bat antolatu zuten bertan. Euskaraz hitz egiten zuten bi lagunek euren artean, eta bati adarra jo zioten, Txekoslovakiakoak zirela esanez.

23. Gerrako frontean egindako ibilerak

- **Erref:** SOR-035/029
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:59:46. **Bukatu:** 01:02:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Iñaki Teruel inguruan zegoela, Guadalajarara joateko agindua etorri zitzaien, moroek frontera joan nahi ez zutela, eta haiek zapuztera. Hurrengo egunean, Huescara trenez. Bidean zihoazela, trena tunel batean geratuta egon zen eta ia haren baporearekin ito egin omen zen. Huescako frontean zortzi egun egin ostean, oinez joan ziren Barbastoraino.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com